



DEIALDIA, OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO ERDI MAILAKO TITULUDUNAREN (LORATEGIAK) 2 PLAZA

Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, deialdiaren oinarriak aldatu ondoren

Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau onetsi du 2026ko maiatzaren 14an:

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko apirilaren 13an, deialdiaren oinarriak aldatzea onetsi zuen, honako honen arabera:

Aldatzea erdi-mailako tituludunaren (lorategiak) 2 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiko 2.1.1 oinarria, onetsitako titulazioei bezainbatean, honela:

c) Unibertsitate-gradua Nekazaritzako Ingeniaritzan edo gradua Basogintzako Ingeniaritzan, edo nekazaritzako ingeniari teknikoaren eta basogintzako ingeniari teknikoaren lanbide arautuetan jarduteko gaitzen duten unibertsitate-titulazio ofizialak, edo baliokidetzat jotako titulua edukitzea.

Horiek horrela, eskabideak aurkezteko beste epe bat ireki zen, hogeitaz egun naturalekoa, erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, eta ez zen beharrezkoa izan hasierako epean eskabidea aurkeztu zutenek hura berriro aurkeztea.

Ebazpen honen bidez onesten den behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horrek barnean hartuko ditu deialdian parte hartuko duten izangai guztiak.

Bat etorrira Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko erdi-mailako tituludunaren (lorategiak) 2 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiaren baldintzen laugarren oinarriarekin, zeina 2026ko 47. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, martxoaren 5ekoan, argitaratu baitzen, EBATZI DUT:

1.- Izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hau onestea:

IGOERA-TXANDA

Onartutako izangaiak:

Bat bera ere ez

Baztertutako izangaiak:



Ez egiaztatzeagatik 2.1.2. oinarrian eskatutako baldintza betetzen duela

NANa	ABIZENAK ETA IZENA
***7961**	MARTÍNEZ OSÉS, IGNACIO

TXANDA IREKIA

Onartutako izangaiak:

NANa	ABIZENAK ETA IZENA
***4881**	LOINAZ EZCARAY, ITSASO
***7961**	MARTÍNEZ OSÉS, IGNACIO
***1383**	SESMA AÑÓN, BLANCA

Baztertutako izangaiak:

Ez aurkezteagatik 2.1.c oinarrian eskatutako titulazioa edo egokia ez izateagatik

NANa	ABIZENAK ETA IZENA
***3981**	CASTUERA GONZÁLEZ, MARÍA JOSÉ
***4590**	SOLA IGUAL, PABLO

2.- Agintzea ebazpen hau Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitara emateko.

Ebazpen hau Udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo hamar egun balioduneko epean erreklamazioak aurkezten ahalko dira, eta eskaeretako akatsak zuzendu, eskabide bat aurkeztuta Iruñeko Udaleko edozein erregistrotan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bideetatik edozein erabiliz.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.